

**BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALA:**

Kirol merkatua aztertu eta gero ikusi dugu non eta noiz izaten dituzten kirol aplikazio, ekitaldi edo bestelako ekintzak beraien ezagupenerako egokiagoa diren guneak. Beraz, komunikazio-kanaleko arloari dagokionez, *KirolApp* aplikazioa Euskal Herriko kirol ekitaldi nagusietan publizitatuko dugu adibidez, San Mamesen partiduak jokatzen direnean. (Derbi egunetan bakarrik, izan ere, San Mamesen egongo diren ikusle ia guztiak Euskal Herrikoak izango direlako), eskupilota partidetan (frontoiko paretan), hainbat lasterketen (txirrindularitza, atletismo, trainera...) helmugetan, etab.

Beste modu bat gure aplikazioa ezagunarazteko, Instagram izango da. Gaur egun jende askok erabiltzen duen aplikazio da. Instagrametik, nahiko balute, bide zuzena izango dute "Play Storera" edo "Apple Storera" joateko han deskargatzeko, baina hau banaketa kanalarik dagokio. (Instagramen bidez, ikerketa bat eginez, konturatu gara argitaratzen diren agerkariak ikusle gehiago dituztela eguerdian, eta beraz, ordu horietan argitaratuko dugu).

Banaketa-kanalei dagokionez, gure aplikazioa webgune batera lotura jarriko dugu non hainbat aplikazio dauden deskargatzeko, Play Storera (Android izango balitz) edo Apple Storera (IOS izango balitz). Beraz, mugikorrean edo ordenagailuan erraz deskarga dezakete eta segundo gutxi batzuetan eskuragarri izango dute. Beraz, esan dezakegu, gure bezeroekin harremanetan egoteko komunikazio-kanala Internet da -webgune (*KirolApp*) baten bitartez-

*KirolApp* aplikazioa doanik egongo da "Play Store"n eta "Apple Store"n deskargatzeko. Bestalde, aplikazioa behin deskargatua barruan bi aukera izango ditugu: Lehena, doanekoa izango dena, eta erabiltzailea inbitatu bezala erabiltzeko aukera izango duena, abantaila gabekoa, hau da, sarrera beherapenik gabe, zozketetan parte hartzeko aukerarik gabekoa eta garraio aukera gabekoa. Bigarren aukera izenpetzea da: 9,99€ hilero ala 99,99€ urtero ordaintzen eta hor hainbat beherapen izango dituzu zure zonaldeko hainbat kiroleko ekitaldietan.

Esan bezala, gure produktua kirol aplikazio bat denez, gure erabiltzaileak denbora tarte txikian erabilgarri izango dute. Deskarga ondoren, gure aplikazioaren iritzia eskatuko diegu, jakin dezagun zer hobetu dezakegu. Gainera, berrikuntzak egiterakoan haien laguntza eskatuko dugu, izan ere, haiek dira aplikazio hobesteko gomendio onenak eman dezaketenak.

Amaitzeko esan behar dugu, guretzako bezeroarentzako arreta oso garrantzitsua dela eta beraz, bezeroek gurekin telefonoz edo *gmailez* konektatu dezakete. Gainera, eguneratuta egoteko eta kontaktua zuzenagoa izan dadin, gurekin *Twitter*, *Instagram* edo *Facebook* bitartez kontaktuan egon gaitezke.